

“Umorea beti da politikoa”

Kike Amonarriz | Zuzena, jatorra eta egokia

Euskara elkarte bateko liberatu, euskara teknikari, Siadeco edo ARGIAko langile, telebistako aurkezle...
Euskararen eremuko nomadatzat du bere burua.
Ipurterrea iruditu zaigu guri. Ipurterrea eta tolosarra.

SUSTRAI COLINA
Argazkia: Maddi Soroa

Hara lanik gabe gelditzeko beldurrik ez duen nor-bait!

Bertigoa behin baino gehiagotan izan dut. Baina datu objektiboek bestelakorik esan arren beldurra subjektiboa da.

Datu objektibo bat: ez zara unibertsitatea asko zapal dutakoa.

Han ikasi nuen karrera atera, atera behar dela, baina bitartean proiektuetan sartu behar dela, busti egin behar dela, eta benetan ikasi, hor ikasten dela.

Gure amak entzuten bazaitu...

Espezialistak behar ditugu, baina hiper-espezializazioak ez dakar onurarik alor humanistikoetan. Ikuspegi orokor bat askoz aberatsagoa da, pista gehiago ematen du gauzak interpretatzeko, erakusteko, eta zukutzeko garaian.

Komunikatzaile limurtzaile horietako bat ez ote zaren...

Gaur egun, mundu guztia da komertziala. Denak ari gara komunikatzen, eta komunikatzea norbere burua ezagutzea da. Norbere beldurrak uxatzea, garen bezalakoak azaltzea.

Osea, komunikatzea ez dela *eskesuperguay* erabil-tzea?

Hori moda bat da. Gazte batek, seguraski, era batera edo bestera, ezinbestean erabili beharko ditu hitzok euskaraz egingo baldin badu.

***Vade retro* Satanas!**

Erdarei eta maileguei ez diegu beldurrik izan behar. Adierazkortasunaren bila sistematikoki erdaretara jo behar izateari eduki behar diogu beldurra.

Ni hedabideetan entzundakoek beldurtzen naute.

Hedabideetan, oro har, ezin gara kaletik erabat urrundu, baina gure erantzukizuna da kalean egiten dena baino erreferente egokiagoa eskaintzea.

Erreferentea euskararen industria izango balitz sikiera!

Askotan errealtateari begiratu beharrean biktimismoa erabiltzen dugu. Biktimismoaren kontrako amorratua naiz. Euskararen garabidea ezerk galaraziko badu biktimismoa izango da.

Eskerrak umoreak mundua aldatzeko balio duen.

Umoreak gizarte klabeak puskatzeko balio du baina baita iraunarazteko ere. Umorea edozertarako erabil daitekeen tresna da. Nork erabiltzen duen eta zertarako.

Batzuek edozerri egiten diote barre.

Noski, baina oso jarrera diferenteak adierazi ditzake barre bakoitzak. Gauza batzuek ez didate pito graziazik egiten.

Ez zara euskal gatazka delakoaz ariko, ezta?

Giro politiko honek ez du umore gehiegirik sortzen. Egoerarengatik batetik, eta gutxi garelako, bestetik. Dena den, umorea beti da politikoa. ■